

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ZUIAKO UDALA

**Urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborra biltzeko zerbitzuen 2022ko bigarren lauhileko tasak ordaindu behar dituztenen erroldak jendaurrean jartzea eta tasa horiek kobratzea**

Behin eginik urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborra biltzeko zerbitzuen 2022ko bigarren lauhileko tasak ordaindu behar dituztenen erroldak, errolda horiek jendaurrean jarrita egongo dira 15 egunez. Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Zerga norberaren borondatez ordaintzeko araututako epea 2022ko irailaren 15etik azaroaren 15era bitartean (biak barne) izango da, eta azaroaren 15ean kobratuko dira helbideraturiko ordainagiriak.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekarguarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Murgian, 2022ko urriaren 3an

*Alkatea*

**UNAI GUTIERREZ URKIZA**